

## e) Ikasleak beren ikaskuntzetan inplikatzeari

### 1. maila: Oinarrizkoa

Curriculumeko gaiek eta proposatutako jarduerak ikasle gutxi batzuen interesa baino ez dute pizten.

Bakarkako ikaskuntza-egoerak bakarrik proposatzen ditu, eta horrek ikasleen arteko ezberdintasunak uzten ditu agerian (maila aurreratua duten ikasleak, zailtasunak dituztenak...). Ez hori bakarrik, motibazio falta eragiten du, batez ere, zailtasun handienak dituzten ikasleengan.

### 2. maila: Garatze bidean

Curriculumeko gaiek eta proposatutako jarduerak ikasle guztien interesa pizten dute.

Ikasleen arteko lehia gehiegi sustatzen ez duten jarduerak proposatzen ditu.

Ikasle guztien arrakasta eta ikasleak beren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatzeari sustatzen duten planteamendu metodologikoak egiten ditu.

### 3. maila: Garatua

Ikasle guztien ikaskuntza esanguratsuekiko interesa pizten du, bere eskolak ikasleen interesen eta trebetasunen arabera doituta.

Lankidetzako proposamenak egiten ditu ikasleek talde osoaren arrakastarekiko konpromisoa senti dezaten eta elkarrekin lankidetzan aritu daitezzen.

### 4. maila: Aurreratua

Ikasle guztiak inplikatzeari ikaskuntza esanguratsuan, eta bere eskolak ikasleen interesen eta trebetasunen arabera doitzen dituztenez, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuarekiko konpromisoa sentitzea ahalbidetzen du.

Ikasle guztiak aritzen dira modu positiboan elkarlanean, eta aitortu egiten dira ikaskide guztien esfortzu eta lorpenak.